

LASARTE-ORIAKO LITERATURAKO XXXVIII. LEHIAKETA, 2024. URTEA

Lasarte-Oriako Udalak, Kultura Batzordearen bitartez, Lasarte-Oriako Literaturako XXXVII. Lehiaketarako deialdia egiten du, ondoko oinarri hauen arabera:

OINARRIAK

1.- Parte-hartzea

Europar Batasunean bizi diren 2008. urtean eta aurrekoetan jaiotako pertsonak parte hartu ahal izango dute lehiaketan, euskara edo gaztelania erabiliz. Lasarte-Orian erroldatutako 16 eta 26 urte bitarteko pertsonak, biak barne, espezialitate bakoitzeko "Lasarte-Oria" sariak ere eskuratu ahal izango dituzte.. Aurreko ekitaldietan sarituak ezingo dira aurkeztu espezialitate sariztatuetara.

2.- Aurkeztea

Aurkeztutako idazlanek argitaratu gabeak eta jatorrizkoak izan behar dute. Ezingo dira izan oraindik epaia eman ez duen beste lehiaketaren batera aurkeztutakoak, eta ezingo dira inongo argitaletxerekin konprometiturik egon. Parte-hartzailek obra BAKARRA aurkez dezake espezialitate bakoitzeko.

Jatorrizkoak RTF formatu digitalean aurkeztu beharko dira, A4 orrialdearen tamainan, 12 tamainako letran, tarte bikoitzean. Orrialdeek zenbakituta egon beharko dute, izenburua izan beharko dute eta ez dute egilea identifikatzeko xehetasunik izango.

2.-1 Formatu digitalean aurkeztu beharko dute, POSTA ELEKTRONIKOZ bidaltzeko Euskerazko lanak posta elektronikoz bidaliko dira, ezarritako epearen barruan, honako helbide honetara: literatur.lehiaketak2024@lasarte.oria.eus jarraibide hauek betez: Postaren gaia: lanaren izenburua, kategoria eta hizkuntza. Gainera, Lasarte-Oria sarietarako hautagai bazara, Lasarte-Oria Saria emango da.

ERANTSIAK

1. aurkezten den obra artxiboa RTF formatuan: Fitxategiaren izena (lanaren izenburua.RTF),
 2. Artxiboa, parte hartzen duen pertsonaren datuekin: izena, abizenak, helbidea, jaioteguna, NAN zenbakia edo pasaporte, telefonoa eta harremanetarako helbide elektronikoa.
- Fitxategiaren izena: [lanaren izenburua] _datos. RTF

3.- Epeak

Jatorrizkoak entregatzeko epea 2024ko maiatzaren 10an amaituko da, 24:00etan. Autoreek ezingo dituzte jatorrizkoak erretiratu epaia ezagutzera eman baino lehen.

4.- Epaimahaia

Epaimahaia Kultura Batzordeak izendatuko du, eta haren osaera epaiaren unean emango du ezagutzera jendaurrean.

5.- Epaia

Epaimahaia urrian bilduko da epaia emateko. Epaimahaiaren erabakia ezin apelatuzkoa izango da. Epaimahaiaren erabakia www.lasarte-oria.eus plazaratuko da. Epaimahaiak saria banatzeko ahalmena izango du, egoki baderitzo. Obra berak ezingo ditu bi sari eskuratu.

6.- Jatorrizkoak itzultzea

Saritu gabeko lanak, ez dira itzuliko, eta suntsitu egingo dira.

7.- Interneten argitaratzea.

Saritutako lanak Interneten publikatu ahalko dira, www.lasarte-oria.eus helbidean.

8.- Adostasuna

Parte hartzeak berekin darama honako Oinarri hauek onartzea.

9.- Sariak

Lasarte-Oriako XXXVIII. Literatura-Lehiaketarako deialdia honako espezialitate hauetan egiten



da:

POESIA		
Saria 1	Euskarazko POESIA (gai eta metrika libreak, 300 bertso gehienez).	Diploma eta 650 €.
Saria 2	Euskarazko POESIAKO "Lasarte-Oria" saria (gai eta metrika libreak, 300 bertso gehienez).. 1998 eta 2008 bitartean jaiotakoentzat	Diploma eta 650 €
Saria 3	Gaztelaniazko POESIA (gai eta metrika libreak, 300 bertso gehienez).	Diploma eta 650 €.
Saria 4	Gaztelaniazko POESIAKO "Lasarte-Oria" saria (gai eta metrika libreak, 300 bertso gehienez).1998 eta 2008 bitartean jaiotakoentzat	Diploma eta 650 €

MIKROKONTAKIZUNA		
Saria 1	Euskarazko MIKROKONTAKIZUNA (gai libre, gehienez 1.500 karaktere, zuriuneak barne).	Diploma eta 650 €.
Saria 2	Euskarazko MIKROKONTAKIZUNEKO "Lasarte-Oria" saria (gai libre, gehienez 1.500 karaktere, zuriuneak barne). 1998 eta 2008 bitartean jaiotakoentzat	Diploma eta 650 €.
Saria 3	Gaztelaniazko MIKROKONTAKIZUNA (gai libre, gehienez 1.500 karaktere, zuriuneak barne).	Diploma eta 650 €.
Saria 4	Gaztelaniazko MIKROKONTAKIZUNEKO "Lasarte-Oria" saria (gai libre, gehienez 1.500 karaktere, zuriuneak barne). 1998 eta 2008 bitartean jaiotakoentzat	Diploma eta 650 €.

Sari hauei bere kasuan indarrean dagoen legediaren arabera PFEZa aplikatuko zaie.

9.- Sari-banaketa

Sariak banatzeko ekitaldia 2024ko azaroaren 23ean egingo da.

Lasarte-Orian, 2024ko apirila

KULTURA DEPARTAMENTUA